



# 0. ERANSKINA

## ESKU-HARTZE ESKARIARI BURUZKO AKTA

### ORIENTABIDEAK

#### Protokoloaren funtsezko helburua

Protokoloaren alderdi formalak protokoloaren estandarizazioa bermatzen du, hau da, esku hartzen duten eragile guztiak izan behar duten ulermen komuna. Protokoloaren funtsaren xedea, berriz, eskaera jakin bati eman beharreko hezkuntza-erantzuna egokitzea da.

#### Funtsezko unea

Entzute aktiboaren unea da, non konfiantza eraikitzen hasiko garen. Ez da balorazio bat egiteko momentua, ezta adierazten digutena zalantzan jartzekoa ere, bereziki ustezko biktimaren familiarekin bilduta gaudenean.

#### Esku hartzeko eskaria jasotzeko jarrera

Gogoan izan familiarekin edo esku hartzeko eskaria aurkezten duen pertsonarekin egingo dugun lehen bilera honetan izango dugun jarrera muturreraino zaindu behar dugula. Lehenengo adierazpen hori **ez dugu zalantzan jarriko**. Entzute aktiboa, begirada arretatsua, konplizitatea eta enpatia afektiboa, kognitiboa eta motorra gure solaskideek euren ondoan baldintzarik gabe gaudela ulertzeko baliabideak dira. **Ez da jazarpena den edo ez balioesteko unea**, hori gerora ikusiko da.

Oso garrantzitsua da bilera etenik gabe igarotzea, elkarrizketaren erreserba eta intimitatea bermatuko duen leku batean.

Eskatzaileari **0 eranskinaren kopia emango zaio**. Eranskinean jasotako informazioa eta bileran landutako gaiak ikastetxetik kanpo ez zabaltzeko beharra adieraziko zaio beti, sinaduren lekuan agertzen den bezala.

#### Familiarekin komunikatzea, esku hartzeko eskaria aurkeztetik abiatuta

Esku hartzeko eskaria familiak aurkeztu badu, komunikazio eta koordinazio etengabea izan beharko da familiarekin, egoera behar bezala kudeatzen eta ikaslearen segurtasuna zaintzen laguntzeko. Esku hartzeko eskaera beste eragile batek egiten badu (irakasleak, langile ez irakasleak, beste guraso batek edo beste herritar batek), 0 eranskinaren bidez hasiko da protokoloa. Bilera horretan ahalik eta informazio gehiena jasoko da, baina eskatzaile horri, soilik, oinarrizkoa emango zaio. Hau da, tramitea nola izan ohi den azalduko zaio, baina esku-hartzearen inguruko zehaztapenak ez zaizkio emango. Kasu horietan, ustezko biktimaren familiari deituko zaio eta esku-hartzearen inguruko zehaztapenak emango zaizkio. Bilera horren akta jasoko da (akta ereduak). Une horretatik aurrera, etengabeko komunikazioa izango da familiarekin.

#### Ikastetxetik kanpo izandako jokabideak.

Ikasleek ez dute konpartimentu estankorik egiten ikastetxe barruko eta kanpoko gertakarien artean. Bizi dituzten gertakari guztiak etenik gabeko hari baten parte dira. Horregatik, ustezko jazarpen-jokabideak ikastetxetik kanpo gertatu arren, ohikoa da jokabide horiek eskola-jarduerarekin kausa-ondorio lotura izatea. Hortaz, ikastetxeko zuzendaritzak, Hezkuntza Ikuskaritzarekin harremanetan jarrita, jazarpen-protokoloa irekitzeari buruzko erabakia hartuko du.

#### Ikasleko protokolo bat

Protokolo bat irekiko da ustezko biktima kasu bakoitzerako.

Protokoloa pertsonala da; horregatik, ikasle bakoitzak berea izan behar du, inplikatuak bat baino gehiago izan arren.

Eskaeraren JATORRIA

Familia: protokoloari buruzko informazio zehatza emango zaio eta komunikazio eta koordinazio etengabea izan beharko dugu

Bestelakoak: eskaera beste eragile batek egiten badu,

- prozesuari buruzko informazioa orokorra emango zaio zehaztapenik eman gabe.
- Ikastetxeak familiarekin harremanetan jarriko da berehala eta komunikatuko zaio protokoloari hasiera eman zaiola eta jasotako informazioa transmitituko zaio. AKTAN jasoko da eta familiak sinatuko du.( Ikus. "Akta eredua")
- Familiarekin etengabeko komunikazioa mantenduko da

Eskariaren jatorria (X batekin adierazi)

Familia	<input type="checkbox"/>
Bestelakoak	<input type="checkbox"/>

Adierazi eskariaren jatorria  
(irakasleak, irakasle ez diren langileak, pediatriak, etab.)

## 1.- IKASTETXEAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

Ikastetxea	
Ikastetxearen kodea	
Herria	

## 2.- USTEZKO BIKTIMAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

Izen-abizenen inizialak	Beharrezkoa da <u>izenaren eta bi abizenen</u> inizialak jartzea, inizial berberak dituen kasu bat baino gehiago izaten saihesteko.
Generoa	
Adina	
Maila/Taldea	



### 3.- AZALDUTAKO GERTAKARIAK

Ahalik eta zehaztasun handienaz transkribatuko dira eskaria egiten duen pertsonak adierazitako gertakariak. Ustez inplikaturik dauden ikasleak inzialen bidez identifikatuko dira.

Eskaria familiatik datorrenean, kontakizuna oso emozionala izan ohi da, sarritan desordenatua. Ikastetxearen eginkizuna errelatoari zehaztapena eta ordena ematea izango da, entzute aktiboko teknikak erabiliaz, beraz, bilerak bere denbora beharko du adierazi nahi den hori azalerazteko.

Familiaren seme edo alabak jazarpen prozesu bat bizi dutela adierazteak bildurra eman diezaieke. Horrelakoetan BAT taldeak jazarpen egoera bati buruz ari diren galdetu diezaieke, zalantzak argitzeko eta jazarpen egoerak normaltasunez artatzen dituela adieraziz.

Oso garrantzitsua da zehaztapena bilatzea, alde batetik gertatzen dena jakin nahi dugula adieraziko diegu eta, bestalde, zer aztertu identifikatu daitekeelako. Gertakariak, datak, tokiak, eragileak eta lekukoak identifikatzea eta zehaztea oso garrantzitsua da, ondorengo ikerketa errazteko helburuarekin, nahiz eta ikasleen kasuan inzialekin adierazi eranskinetan.

Familiaren idazkia erants daiteke, baina ikasleen identifikazioa inzialekin adierazi beharko da.

### 4.- USTEZKO BIKTIMAREN SEGURTASUNA BERMATZEKO ZUZENDARITZAK HARTUKO DITUEN NEURRIAK ETA EBIDENTZIAK BILTZEKO PROZESUARI BURUZKO INFORMAZIOA

#### SEGURTASUNA

Zuzendaritzak ikaslea babesteko hartuko diren premiazko neurrien berri emango dio esku hartzeko eskaria aurkezten duenari. Familia bada eskaria aurkeztu duena, lankidetzaren estuan jarduteko eskatuko zaio, izan ere, inplikaturik adingabeari laguntzeko modurik egokiena erantzukizuna partekatzea baita.

#### EBIDENTZIAK

Jazarpen egoerak isiltasunaren kodeaz baliatzen direla jakinda, jazarpena egon badagoela pentsatuta jardungo dugu. Familiari adieraziko dizkiogun baliabideen artean hauek izan daitezke ohikoak:

- Espazio eta momentu desberdinen behaketa zuzena
- Komunikazio iturri ez zuzenak: postontzia, emaila, QR kodea...
- Ustezko biktimari erreferentziatzeko pertsona eskaini
- Autotxostenak
- Banakako tutoretzak gelakide guztiekin ohiko prozedura bezala
- Jazarpenaren testuinguruan dauden ikasleekin banakako elkarrizketak
- Pikas metodoan oinarritutako elkarrizketak
- Jazarpenaren testuinguruan dauden ikasleen gurasoekin bilerak
- Heterotxostenak

Jazarpena dagoen ala ez baieztatzen duten ebidentziak lortzea da gure helburua



....., 20.....ko .....ren .....

Bileraren data adierazi behar da, nahiz eta beste egun batean sinatua izan. Data honek garrantzi handia du, prozesuaren hasiera adierazten du eta epeak betetzeko kontuan hartu beharrekoa da.

Ikastetxeko zuzendaria

Eskatzailea

Sin.: .....  
.....

Sin.:

Eskaria egiten duen pertsonak ez ditu zabalduko akta honetan jasotako informazioak, ez eta bileran aztertutako gaiak ere (Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta bakoitzaren irudirako eskubidearen babes zibilar buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoaren 7. artikulua).

Zer egin esku hartzeko eskaera gauzatu ondoren?

Jakinarazpen dokumentu hau erreferentziarako ikuskariari bidaliko zaio. Era berean, laguntza-zerbitzuen kasuan, helbide elektronikoa honetara bidaliko da:

[bnbizikidetza.bizikasi@berritzeguneak.eus](mailto:bnbizikidetza.bizikasi@berritzeguneak.eus). Komunikazio egunetik 5 eskola-egun gehieneko epea izango dugu ustezko biktimaren irakasle taldearekin biltzeko eta dagokion aktan jasotzeko (irakasle taldearen bileraren akta). BAT taldeak bilera hau prestatzeko laguntza zerbitzuen aholkularitza izango du.



# IRAKASLE-TALDEAREN BILERAREN AKTA

## ORIENTABIDEAK

0 eranskina bete zen egunetik gehienez ere, bost eskola egun daude bilera hau gauzatzeko. Bertan ikaslearekin egon ohi diren irakasleek hartuko dute parte, BAT taldeko ordezkartzarekin batera.

Bilera honen helburua bikoitza da:

- Irakaslearen segurtasun neurriak antolatzea.
- Jazarpen egoera bat den ala ez den jakiteko, irakasle bakoitzak ebidentziak jasotzeko eta batzeko beteko duen eginkizuna zehaztea.

BAT taldeak argi izan behar du bilera honen helburua ez dela jazarpenaren aurre-balorazio bat egitea, eta partekatzen diren iritziak objektiboak izan daitezen bermatuko du, atribuzioetan jausi gabe.

## 1.- IKASTETXEAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

Ikastetxe barneko dokumentua izanik, ez da inora bidaliko, erreferentziatzko ikuskariak horrela eskatzen ez badu behintzat. Beraz, ikaslearen identifikazioari dagokionez izena ipini daiteke, baina abizenak inizialekin jasoko dira.

Ikastetxea	
Ikastetxearen kodea	
Herria	
Ustezko biktimaren izena eta abizenen inizialak	

## 2.- BILERARA BERTARATUAK

Izen-abizenak	Kargua*	Izenpea

\* Aderazi nortzuk diren BAT taldeko kideak



### 3.- KASUARI BURUZKO INFORMAZIO GARRANTZITSUA

Atal honetan bilerara bertaratutako pertsonak emandako informazioa sartuko da. Nahitaezko konfidentzialtasuna bermatuko da aipaturako gaiei buruz, eta kontuan hartuko da adingabeekin lotutakogai guztiak zuhurtasun osoz landu behar direla.

BAT taldeak jazarpen egoeraren berri eman zeneko informazioa partekatuko du irakasleekin eta euren iritzia partekatzeko aukera emango die. Atribuzioak ez dira onartuko, ez ikasle ezta familiari bideratutakoak ere. Datu zehatz eta objektiboak azalaraztea bilatuko da: ikaslearen parte-hartzea, gatazken maiztasuna, taldekatzeetan ematen diren arazoak eta abar.

### 4.- HARTUTAKO ERABAKIAK

Berariaz adieraziko dira ebidentziak biltzeko prozedurari buruz hartutako erabakiak, bai eta ustezkobiktimari zuzendutako babes-neurri espezifikoek buruzkoak ere.

BAT taldeak, irakasle taldearekin batera, segurtasuna eta ebidentzien jasoketarako adostu dituen neurriak jasoko dira hemen:

Adibidez:

- Behaketen arduradunak, momentuak eta espazioak.
- Komunikazio ez zuzenen sustatzea: postontzia, emaila, QRa...
- Autotxostenak.
- Banakako tutoretzak.
- Irakasleekin elkarriketak nork egingo dituen, noiz, nola.
- Familiekin bilerak.
- Hurrengo triangulazio bileren datak.

..... (e)n, 20..... (e)ko ..... ren..... (e)an

Zuzendaria

Sin.: .....

**OHARRAK:** Gehienez ere bost eskola-egun igaroko dira gertakariak jakinarazten direnetik bileraegiten den egunera arte.



## A TXOSTENA

### ORIENTABIDEAK

#### HELBURU NAGUSIA

Dokumentu honen helburua ustezko eskola-jazarpen egoera izan zitekeena ikertzeko erabili diren baliabide eta tresnak deskribatu eta horietatik zein ebidentzia objektibo eskuratu diren zehaztea, ebidentzia horien analisia egitea eta ondorioak ateratzea da.

Txosten hau erreferentziatzko ikuskariari bidaliko zaio. Era berean, laguntza-zerbitzuen kasuan, helbide elektronikoa honetara bidaliko da: [bnbizikidetza.bizikasi@berritzeguneak.eus](mailto:bnbizikidetza.bizikasi@berritzeguneak.eus)

#### EBIDENTZIAK

Ebidentzien eskuratzeko lan koordinatua eskatzen du, non eragile bakoitzak, diskrezioz, zer egin behar duen dakien. Balioespen honen etsai nagusiak usteak eta atribuzioak izaten dira. Horiek biktimizazio prozesuan egon daitekeen ikaslea birbiktimizatu dezakete; beraz, ikerketa doitu eta planifikatua izango da BAT taldearen lidergoetan.

Ebidentziarik ez izateak ez du esan nahi jazarpenik ez dagoenik, hortaz, kontuz jazarpena ez dagoela adieraztearekin.

#### EPEAK

Irakasle bilera egin zen egunetik beste 15 eskola egun izango ditugu (gehienez) txosten hau bideratzeko. Zuzendariak adierazitako epeak ezin direla bete irizten badu, betiere behar bezala justifikatutako arrazoiak tarteko, Hezkuntzako Ikuskaritzaren oniritzia eskatu beharko du.

### 1.- IKASTETXEAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

Ikastetxea	
Ikastetxearen kodea	
Herria	

### 2.- HASIERAKO INFORMAZIOA<sup>1</sup>

#### - Inplikaturako ikasleen identifikazio datuak

a) Ustezko biktima:

	Ikaslea
Inizialak (izen-abizenak)	Beharrezkoa da <u>izenaren eta bi abizenen</u> inizialak jartzea, inizial berberak dituen kasu bat baino gehiago izaten saihesteko.
Generoa	
Adina	
Maila eta taldea	



## b) Salatutako jokabidearen ustezko eragileak

Baliteke 0 eranskinean ustezko erasotzaile batzuk identifikatuta egotea, baina ikerketa prozesuan zehar beste batzuk detektatzea. Jokabide jazarlea badute, hemen gehituko dira. Hiru eragile baino gehiago badira, zutabe gehiago sortu ahal izango dira.

	Ikasleak		
Inizialak (izen-abizenak)			
Generoa			
Adina			
Maila eta taldea			

## - Ustezko jazarpena gertatu den lekua

0 eranskinean deskribatutako tokiak: jolastokia, jantokia, aldagelak, kalea, urtebetetzeko ospakizun batean, ikasle baten etxean, entrenamenduetan...

## - Lekukoak, halakorik bada (erabili inizialak)

--

<sup>1</sup>Nahitaezko konfidentzialtasuna bermatuko da izapideetan eta ikerketetan, eta kontuan hartuko da adingabeekin lotutako gai guztiak zuhurtasun osoz landu behar direla.

## - Informazio osagarria

	X batekin adierazi
Badago mediku-txostena	
Ikastetxeak ba al dauka txostenaren kopiarik?	
Salaketa jarri da Polizian, epaitegietan edo Fiskaltzan	
Ikastetxeak ba al dauka txostenaren kopiarik?	
Arartekoari kexa aurkeztu diote	
Ikastetxeak ba al dauka kexaren kopiarik?	





### 3. IKASTETXEAK LORTUTAKO INFORMAZIOA

Ikastetxeak bildutako datuak eta ebidentziak, esku hartzeko eskaria oinarri hartuta.

Zehatz-mehatz eta objektiboki deskribatuko dira datuak eta ebidentziak, pertsona hauengandik eta metodo hauen bidez jasotakoak:

- Ustezko biktima: behaketak, elkarrizketak erreferentziazko pertsonarekin, banakako tutoretzak, Pikas metodoan oinarritutako elkarrizketak, autotxostenak, autonarrazioak, etab.
- Ikasgelako ikasleak: heterotxostenak, banakako tutoretzak, postontzia, etab.
- Lekukoak: behaketak, banakako tutoretzak, Pikas metodoan oinarritutako elkarrizketak...
- Jazarpen-jokabidearen ustezko erantzuleak: oharrak, banakako tutoretzak, elkarrizketak erreferentziazko pertsonarekin, Pikas metodoan oinarritutako elkarrizketak...
- Familiak (ustezko biktimarenak eta jazarpen-jokabidearen ustezko erantzuleenak): elkarrizketak, bilerak...
- Irakasleak eta irakasle ez diren langileak: triangulazio-bilerak.

Taula honen azalpenean adierazten den bezala, datu zehatzak adieraziko dira. Honek ez du esan nahi behaketa taula oso bat ipini behar denik, baizik eta bertan ikusi dena:

*Adibidez:*

*Behaketetan ikus daitekeena zera da:*

*Astearte eta ostegunetan (baloiak erabili daitezkeen egunak), taldeak egiterakoan gutxietsi egin izan dute. Ostiraletan (joko tradizionala), aldiz, bere gelako batzuekin egoten da, xiba nola erabili irakasten.*

*Jasotzen dituen erasoak hitzezkoak direla ikusi da eta ez da inoiz fisikoa izan denik ikusi, hala ere, eraso ez zuzenak dira sarrienak: ez dute ekintzetara gonbidatzen, txutxumutxuak zabaldu izan dituzte (guraoen banaketarena, adibidez).*

*Kontaktu fisikoari dagokionez, "la peste" sasi-jolasa egiten diote, norbait ukitzen duenean.*

*Gelako neska taldeak ez dio hain zuzen erasotzen, baina kostata onartzen dute beraien ekintzetan parte hartzea.*

*Askotan bere anaia txikia eta bere gelakoekin (LH2) egon izan da jolastokian.*

*Ez da jantokian gelditzen.*

*Ikasgelan... eta abar.*



#### 4. INFORMAZIOAREN AZTERKETA

**Ondorio** garrantzitsuak, aurreko atalean jasotako ebidentzietatik abiatuta

Aurreko atalean jasotako datuak deskribatzen dira. Hemen datu hauetatik eratorritako ondorioak jasoko dira.

*Adibidez:*

*Behaketetan M.N.H. baztertu egiten dutela ikusi dugu, bereziki, futboleko oinarritzen den lidergoa dutenek: B.G.J eta A.Z.Z.*

*CESC tresnak ere ondorio berdinerak garrantzitsuak: biktimizazio maila handia agertzen da, ahozkoa eta harremanetan, bereziki. Galdetegi honetan ere aukeraketa negatibo asko ditu. BGJ eta AZZ ikasleen agresibitate maila altua da eta prosozializazioa baxua, beraz, bi ikasle hauekin lan egin beharko dugu, denborarekin liderak izateari utziko diote eta.*

*Erreferentziako pertsonarekin izandako elkarrizketetan MNHk futboleko eta beste kiroleko txarra dela dio, eta autoestimua baxua duela esan daiteke. BGJk ez dio jolasten uzten. AZZk BGJren ondoan dagoenean gaizki tratatzen du, baina gurusoak lagunak direnez askotan egoten da bere etxean, eta orduan ez da gaiztoa berarekin. Bere gelako PIZ ikaslearekin ondo konpontzen dela dio. PIZ ikaslearen prosozialitatea eta aukeraketa positiboak CESC galdetegian oso altuak dira, aliantza bat izan daiteke.*

*Gelako norbaitek postontzian idatzi du: "MNHri bullying egiten diote, ez al duzue ikusten?". BGJ eta AZZrekin egindako elkarrizketetan...*



## 5. JAZARPENIK DAGOEN ALA EZ BALIOESTEA, JASOTAKO EBIDENTZIETAN OINARRITUTA

### OHAR OROKORRA

Eskola jazarpen egoera batek lau ezaugarri ditu:

- Jokabide erasotzailea eta biktimizatutako pertsonaren artean **botere desoreka** eragiten da. Hau kopuru desberdintasunagatik (ikasle batzuk baten kontra, adibidez), estatusagatik (jokabide jazartzaileak dituenak lidergo gehiago duelako)... izan daiteke. Kontuan izan, desoreka hori prozesu bat dela eta denborarekin areagotzen joaten dela.

- Jokabide hau **intentzio** bikoitzekoa izan ohi da, beste baten gutxiestearekin norberaren estatusa hobetzea izan ohi delako helburu nagusia. Hau dela eta jazarpenak ikuslegoa behar izaten du sarritan.

-Ikasle batek edo batzuek biktima bera jazartzen dutenean **pertsonalizazioa** dagoela esan dezakegu. Jazarpenak norantza bat izan ohi du, eragiten dutenengandik jasaten duenerako norabidea, hain zuzen. Hau da, jazarpena eragiten dutenek ez dituzte erasoak neurri berdinean jasaten.

-Askotan, jazarpena continuum bat dela esaten dugu, eta horrela da, eboluzionatzen doazen erasoak baitira, desoreka bat eragiten dutenak, intentzio batekin eta norabide batekin. Baina honek denbora bat behar izaten du. Baliteke lehenengo erasoak jazartzeko intentziorik gabekoak izatea, baina ikuslegoaren erantzun positibo bat izan badute, arrakasta sozial modura, erasoak errepikatzen joera egon daiteke. Hasieran, erasoak jaso duen ikasleak ez du babesgabetasun sententziorik, baina erasoak **errepikatzen** badira desoreka nabarmentzen joango da. Hortaz, beste ezaugarri bat denboran errepikatzea izango da.

Argi izan behar dugu errepikapena kuantifikatzea ez dela erraza, eraso askoren berri ez dugulako izango, baina ezin dugu ahaztu kopurua baino gehiago ondorioen iraupena neurtzea dela gakoa.

Onlineko erasoekin, adibidez, eraso bakar batekin ondorioa betirako izan daiteke.

Batzuetan jazarpen egoera bat den (ala izan den) edo ez balioestea zaila izan daiteke, horregatik lau ezaugarri horiek aztertu behar dira. Baina ezaugarri hauek ez dira era isolatu batean aztertu behar, testuinguruari begiratu behar zaio.

### Erantzun bakoitzaren argudiaketa arrazoitua

#### - Ba al dago botere-desorekarik / babesgabetasunik?

Kontuan hartuta jazarpen-jokabidea duten pertsonen kopurua, beldurrarazte-maila, heziketa bereziko ikaslea den...

Erantzuna argudiatu behar da, ezin da soilik bai edo ez izan. 4. Atalean jasotako ondorioetatik abiatu.

#### - Ba al dago mina eragiteko intentziorik?

Umiliatzeko asmoa kontuan hartuta (erasoak jendaurrean gertatzen diren...)

Erantzuna argudiatu behar da, ezin da soilik bai edo ez izan. 4. Atalean jasotako ondorioetatik abiatu.

#### - Ba al dago pertsonalizatorik?

Erasoak edozein ikasleri bereizketarik gabe eta intentsitate berarekin gertatzen EZ direnean...

Erantzuna argudiatu behar da, ezin da soilik bai edo ez izan. 4. Atalean jasotako ondorioetatik abiatu.

**- Ba al dago errepikapenik?**

Erasoa edo haren ondorioak denboran mantentzen direnean, errepikapena dagoela ondorioztatzen da (adibidez: ziberjazarpena).

Erantzuna argudiatu behar da, ezin da soilik bai edo ez izan. 4. Atalean jasotako ondorioetatik abiatu.

Horregatik guztiagatik, jazarpena dagoela ondorioztatzen da?

BADAGO JAZARPENA	X batekin adierazi
<b>BAI</b>	
<b>EZ</b>	



Uste izanez gero JAZARPEN kasua dela, haren ezaugarriak adierazi beharko dira. Adierazi beheko taulan kasuaren berezitasunak.

Adibidea: Kasu batean gizarte-bazterkeria eta -marjinazioa (1), hitzezko eraso (2) eta ziberjazarpena (7) badago, taulan 1, 2 eta 7 apartatuak markatuko dira

	Ez	Bai	Puntuala	Errepikatua
<b>1. Gizarte-bazterkeria eta -marjinazioa</b> – Norbait aintzat ez hartzea (pasiboa). – Ez uztea parte hartzen (aktiboa).				
<b>2. Hitzezko eraso</b> – Norbait iraintzea (zuzena). – Norbaiti buruz gaizki esaka aritzea (zeharkakoa) – Goitizena jartzea (mistoa).				
<b>3. Zeharkako eraso fisikoak</b> – Norbaiti gauzak ezkutatzea – Norbaiti gauzak puskatzea – Norbaiti gauzak lapurtzea				
<b>4. Eraso fisiko zuzenak</b> – Norbait jotzea.				
<b>5. Larderia/xantaia/mehatxua</b> – Norbait mehatxatzea beldurrarazteko – Gauzak egitera behartzea – Armekin mehatxatzea				
<b>6. Sexu-jazarpena edo -abusua eta/edo jazarpen sexista</b> – Sexualki jazartzea edo beldurtzea – Sexu-abusua gauzatzea – Inor modu sexistan beldurtzea, beheratzea, umiliatzea, mintzea edo zirikatzea.				
<b>7. Ziberjazarpena</b> – Mugikorraren, e-mailaren, sare sozialen, whatsappen eta abarren bidez mezuak bidaltzea norbait mehatxatzeko, iraintzeko edo iseka egiteko. – Grabazioak egitea mugikorrarekin egoera iraingarrietan edo intimitatea urratzen dutenetan (adibidez: sexing), eta lagunen artean edo Interneten zabaltzea.				
<b>8. LGTBIQ+fobiako ekintzak</b> - Gizarte-bazterkeria/marjinazioa: aintzat ez hartzea, parte hartzen ez uztea, diskriminatzea LGTBI pertsona izateagatik. - Hitzezko erasoak: irainak, txisteak, isekak, deskalifikazioak edota komentario errespetugabeak. - Eraso fisiko zuzenak/zeharkakoak - Larderia/xantaia/mehatxuak LGTB pertsona izateagatik				
<b>9. Hezkuntza-laguntzako behar espezifikoak dituzten ikasleen aurkako erasoak, dituzten ezaugarriak direla-eta</b> - Gizarte-bazterkeria/marjinazioa: aintzat ez hartzea, parte hartzen ez uztea, diskriminatzea - Hitzezko erasoak: irainak, txisteak, isekak, deskalifikazioak edota komentario errespetugabeak. - Eraso fisiko zuzenak/zeharkakoak - Larderia/xantaia/mehatxua				
<b>10. Eraso arrazistak</b> - Gizarte-bazterkeria/marjinazioa: aintzat ez hartzea, parte hartzen ez uztea, diskriminatzea - Hitzezko erasoak: irainak, txisteak, isekak, deskalifikazioak edota komentario errespetugabeak. - Eraso fisiko zuzenak/zeharkakoak - Larderia/xantaia/mehatxua				



## 6. JAZARPENIK EZ DAGOENERAKO HEZKUNTZAKO JARDUKETA-PLANA

Adierazi 201/2008 Dekretua aplikatu den.

Honako hauek kontuan hartuta zehaztuko da:

Jazarpena ez den beste gatazka edo arazo bat denaren ebidentziak daudenean, hau berroneratzeko esku-hartze bat planifikatuko da honako aldagaiak kontuan izanik:

- 1.- Jarduketa-ildo espezifikoak
- 2.- Arduradunak
- 3.- Tenporalizazioa
- 4.- Jarraipena eta ebaluazioa
- 5.- Familiekin komunikatzeko prozedura

**Jazarpelik BAdago:** Kasua amaitu ondoren, hasierako fasean aurreikusitakoez gain, beste neurri batzuk ere zehaztu ahal izango dira biktimaren babesa bermatzeko. Inplikaturako gainerako ikasleekin hartutako neurriak ere deskribatuko dira. Adierazi 201/2008 Dekretua aplikatu den.

Ikerketa garaian jaso daitezkeen datuen arabera, antolatutako babes neurriak aldatu ahal izango dira. Aldaketa hauek hemen jasoko dira.



## 7. FAMILIEKIKO KOMUNIKAZIOA

Datak, prozedurak, edukia, akordioak, etab.

Eskola jazarpena fenomeno konplexua izanik, esku-hartzeak sistemikoa eta koordinatua behar du. Atal honetan, ustezko jazarpen egoeraren inguruan dauden ikasleen familiekin komunikazioa orain arte nola egin den eta aurrerantzean nola egingo den zehaztuko da.

.....(e)n, 20.....(e)ko .....(a)ren.....(e)(a)n

Txosten hau BAT taldeak beteko du, zuzendariaren oniritziarekin eta erreferentziazko ikuskariari bidaliko zaio. Era berean, laguntza-zerbitzuen kasuan, helbide elektroniko honetara bidaliko da: [bnbizikidetza.bizikasi@berritzeguneak.eus](mailto:bnbizikidetza.bizikasi@berritzeguneak.eus)

Zuzendaria

BAT taldeko kideak

Sin.:

Sin.:



## B TXOSTENA: HEZKUNTZAKO JARDUKETA-PLANA

### ORIENTABIDEAK

#### HELBURU NAGUSIA

Dokumentu honen helburua, balioetsitako jazarpen egoera bati aurre egiteko plana zehaztea da. Txosten hau erreferentziazko ikuskariari bidaliko zaio. Era berean, laguntza-zerbitzuen kasuan, helbide elektronikoa honetara bidaliko da: [bnbizikidetza.bizikasi@beritzeguneak.eus](mailto:bnbizikidetza.bizikasi@beritzeguneak.eus)

#### EPEAK

A txostena sinatu den egunetik beste 22 eskola egun izango ditugu (gehienez) txosten hau bideratzeko. Zuzendariak adierazitako epeak ezin direla bete irizten badu, betiere behar bezala justifikatutako arrazoiak tarteko, Hezkuntzako Ikuskaritzaren oniritzia eskatu beharko du.

#### PLANIFIKAZIOA

Txosten honetan adieraziko den planifikazioa aldakorra da. Harremanen egoeraren arabera proposamen berriak egin daitezke eta dokumentu honetan jaso, nahiz eta ikuskaritza eta laguntza zerbitzuetara bidalita egon.

### 1. IKASTETXEAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

Ikastetxea	
Ikastetxearen kodea	
Herria	
Biktimaren izena eta abizenen inizialak	

### 2. "A TXOSTENA" HEZKUNTZAKO IKUSKARITZARA IGORRI ONDOREN ESKURATU DEN INFORMAZIO OSAGARRIA ETA DATU ESANGURATSUAK

Bileretatik, elkarrizketetatik, gelan oharmandakotik, beste toki batzuetatik edota beste iturri batzuetatik bildutako informazio berriaren deskribzioa.

A txostenetik B txostenera bitartean jasotako informazio esanguratsua hemen jasoko da.





### 3. JARDUKETA-PLANA

#### Kasuaren jarraipenaz arduratuko den taldea

#### Hezkuntza-jarduketak

Jazarpen egoeran murgilduta dauden ikasleekin lanketa banaka egitea hobesten da, baina talde handian zenbait lanketa ere egin daiteke (*adibidez, Bizikasi ikasmaterialekin*) kontu handiz, birbiktimizaziorik eman ez dadin (*Bizikasiko 3. Blokea, adibidez, ez da komeni*).

**Aurreikusten den kronograma eta jarduera motak zehaztuko dira.**

#### - Biktimarekin

Biktimarekin egingo den esku-hartzea zehaztuko da.  
Hona hemen ohiko lan-ildo batzuk:

- Ondorioztatze pentsamendua
- Autokontzeptua eta autoestimua
- Asertibitatea
- Laguntza eskatzearen balioa
- Konektibitatea eta pertenezia sentimendua
- Erruduntasuna eta lotsa
- ...

#### - Jokabide jazarlea duten ikasleekin

Jokabide jazarlea duten ikasleekin banaka lan egitea komeni da, bakoitzak bere esku-hartze espezifikoa behar izaten du eta.  
Hemen ohiko lan-ildo batzuk:

- Ondorioztatze pentsamendua
- Enpatia kognitibo eta emozionala
- Harremanetan trebezia
- Elkarren arteko zaintza
- Homofobia
- Arrazakeria
- Aporofobia
- Matxismoa
- ...



- Ikasle ikusleekin edo, hala badagokio, ikasgelako taldearekin

#### Hemen ohiko lan-ildo batzuk:

- Ondorioztatze pentsamendua
- Enpatia kognitibo eta emozionala
- Atertibitatea
- Enpatia
- Autokontzeptua eta autoestimua
- Konektibitatea eta pertenezia sentimendua
- Harremanetan trebezia
- Elkarren arteko zaintza
- Salataria vs solidarioa
- Homofobia
- Arrazakeria
- Aporofobia
- Matxismoa
- ...

#### Beste jarduketa batzuk

- Familiekin

#### Ohiko lan-ildo batzuk:

- Ikastetxea-familia komunikazioa eta koordinazioa
- Heterokontrolatik autokontrolera
- Seme-alabekin komunikazio eredua
- Salataria vs solidarioa
- Homofobia
- Arrazakeria
- Aporofobia
- Matxismoa
- ...



## - Irakasleekin

## Ohiko lan-ildo batzuk:

- Zaintza eta behaketarako baliabideak
- Gelarekin lantzeko ikasmaterialak
- Metodologia
- Zaintzaren pedagogia
- Ikastetxe abegikor baten eraikuntza
- Erreferentzialtasun eskaintza
- Partaidetzaren sustapena
- ...

## Ziberjazarpen kasuetarako jarduketa espezifikokoak

## Ohiko zenbait lan-ildo:

- Ondorioztatze pentsamendua
- Intimitate digitala
- Ziberjokabidea
- Sare sozialak
- Ziberindarkeria
- ...

“[Ziberjazarpen kasuen aurrean ikastetxeetan jarduteko orientabideak](#)” izeneko dokumentua oso lagungarria izan daiteke.



#### 4. BILERAK FAMILIEKIN EDO LEGEZKO TUTOREEKIN

Datak, bertaratuak, bileraren helburuak eta ondorioak eta bileretan hartutako erabakiak.

Eskola jazarpena fenomeno konplexua izanik, egiten den esku-hartzea sistemikoa eta koordinatua izan behar du. Atal honetan, ustezko jazarpen egoeraren inguruan dauden ikasleen familiekin komunikazioa nola egin den eta egingo den zehaztuko da.

#### 5. JAZARPEN EGOERAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Jarduketa-planaren jarraipena: prozedura, jarraipen-datak eta arduradunak.

Jarduketa-planaren eta egindako esku-hartzeen ebaluazioa.

Hezkuntzako Ikuskaritzari kasuaren jarraipenari buruzko informazioa emateko prozedura eta maiztasuna.

.....(e)n, 20.....(e)ko .....(a)ren..... (e)(a)n

Zuzendaria

BAT taldeko kideak

Sin.:

Sin.:



## AKTA-EREDUA

### ORIENTABIDEAK

#### OHAR OROKORRAK

Honako hau akta eredu bat da, erabilera anitzak izan ditzakeena. Familiekin egiten diren bilerak akta eredu honetan jaso daitezke, baina azpimarratzekoak dira bi erabilera berezi:

- Ustezko jazarpen egoeraren berri ustezko biktimaren familiak eman ez digunean. Ikastetxeak ikusi duenean edota beste familia batek aditzera ematen duenean, adibidez. Kasu horietan, ustezko biktimaren familiari zantzua eta prozeduraren berri emango zaio irakasle taldearen bilera egin aurretik eta hemen bertan jasoko da.
- B txostena duen ikasle baten egoera guztiz hobetu bada eta jazarpenik ez dagoenaren ebidentziak baldin badaude, protokoloari itxiera eman ahal izango zaio. Hau da, ez da itxiera aktarik jasoko ikasturtea bukatu delako edo ikaslea ikastetxetik doalako, baizik eta jazarpena eten egin dela ziurtatu dugulako. Kasu honetan zuzendaritzak amaitutzat eman ahal izango du protokoloa, eta idatziz jakinaraziko die erreferentziazko ikuskariari eta dagokion elkarbizitza-aholkularitzari.

#### 1.- BILERARA BERTARATUAK

--

#### 2.- BILERAREN HELBURUAK

--

#### 3.- ERABAKIAK, ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

--



.....(e)n, 20....(e)ko .....ren .....(e)an.

Zuzendaria

Bertaratuak

Sin.: .....

Sin.: .....

Bileran egon diren pertsonak ez dituzte zabalduko akta honetan jasotako informazioak, ez eta bileran aztertutako gaiak ere (Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta bakoitzaren irudirako eskubidearen babes zibilar buruzko maiatzaren 5eko 171982 Lege Organikoaren 7. artikulua).

OHARRAK:

- Ustez inplikaturik dauden ikasleak inzialen bidez identifikatuko dira.
- Aurkeztutako datuen zein pertsonak ematen dituzten datuen konfidentziasuna mantentzeko, zuzendaritzak haien seme-alabei buruzko informazioa baino ez die emango familiei, eta inoiz ez inplikaturik gainerako ikasleei buruzkoa.